



**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO IKASLEEI HEZKUNTZA SAILAK FINANTZATUTAKO ESKOLA-GARRAIOARI BURUZKO DEKRETUA ALDATZEA XEDE DUEN XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO PROIEKTUAREN KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO.**

Maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuak, eskola-garraioari buruzkoak, xedatuta utzi zituen zer kasu eta baldintza izango dituzten hezkuntza-administrazioak antolatu edo finantzatutako eskola-garraioa erabiltzeko, baita Hezkuntza Sailaren ikastetxe publikoetako ikasleentzako zerbitzu osagarri hori emateko eta jasotzeko zer modalitate dauden ere.

Azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuak aldatu zuen aipatutako 69/2015 Dekretua eta bere aplikazio-eremuan sartu zituen Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako ikasleak eta Oinarrizko Lanbide Heziketakoak.

Irailaren 28ko 217/2021 Dekretuak eguneratu egin zituen eskola-garraiorako eskubidea izateko bete beharreko baldintzak, bai eta baldintzok Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak onartzeko prozedurara egokitu ere. Era berean, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialen bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskatzen zitzairen distantziaren baldintza aldatu zuen, ingurune eta baliabide profesional espezializatuen berariazko beharrak bermatzeko. Horrez gain, ikaslearen etxebizitzaren eta ikastetxearen arteko distantzia neurtzeko irizpide uniformeaz ezarri zuen, berdintasunaren printzipioa bermatzeko. Zaintza partekatuko kasuetan, 217/2021 Dekretuak bigarren gurasoaren etxebizitzarako garraio-eskubidea aitortu zuen, ikasleak distantziaren baldintza betez gero.

Hezkuntza Sailak uste du xedapen orokor bat egin behar dela Dekretu hori partzialki aldatzeko.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1 artikuluan ezartzen duenez, xedapen arautzaile baten proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonak eta erakunderik ordezkagarrienek.

Kontsulta horretan puntu hauek jaso behar dira:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Hura onartzearen beharra eta egokitasuna.
- Arauen helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartu ziren, eta, horien arabera, xedapen orokorrak sustatzen dituen organoak aurretiko kontsulta egiteko izapidea betetzeko, iragarkia jarri ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

Hori dela eta, kontsulta izapidea bete behar da xedapen orokorra garatu baino lehen, herritarrek eta arauak ukitzen dituen gainerako entitateek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Horregatik guztiatik, kontsulta:

- Irekitzen da erakunde publiko eta pertsona fisiko guztientzat, baita arazuko erregulazio honek ukitzen dituela uste duten erakunde, entitate edo elkartentzat ere.





- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuko da.
- Hogei egun balioduneko epea ezarri da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egoki iruditzen zaizkien iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Arau-proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenekin bat eginez, honako hau

### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.** - Kontsulta publikoa egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari –garraioaren arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari– buruzko maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretua, azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuan emandako idazkeran, eta irailaren 28ko 217/2021 Dekretua aldatzeko xedapen orokorraren proiektua egin aurretik.

**Bigarrena.** - Arauak ukitutako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, beren iritzia helarazteko modua izango dute agindu honen eranskinean azaltzen diren gaiei buruz, hogeitun egun balioduneko epean, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

JOKIN BILDARRATZ SORRON.  
EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZAKO SAILBURUA



## ERANSKINA

# KONTSULTA PUBLIKOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO IKASLEEI HEZKUNTZA SAILAK FINANTZATUTAKO ESKOLA-GARRAIOARI BURUZKO DEKRETUA ALDATZEKO XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO PROIEKTUARI BURUZ.

### 1.- Arau-ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak

Ekimen honen bidez Hezkuntza Sailak dekretu-proiektu bat egin eta onartu nahi du eskola-garraioari buruzko maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretua aldatu eta Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak ere aplikazio-eremuan sartzeko. Gainera, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen artean onartzeko, esleitzeko eta matrikulatzeko prozeduran plaza eskatzeko baldintza aldatu nahi du.

### 2.- Arau onartzearen beharra eta egokitasuna

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehazten denez, honako hauek dira hezkuntza-sistemaren printzipioak: ikasle guztientzako hezkuntza kalitatekoa, haien zirkunstantziak eta egoera edozein direlarik ere; ekitatea, hezkuntzaren bidez pertsonalitatea osoki garatzea bermatuko duena; hezkuntza-inklusioa; eskubideetan eta aukeretan berdintasuna, edozein diskriminazio gainditzen laguntzeko, eta hezkuntzarako sarbide unibertsala, desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak konpentsatzeko, arreta berezia eskainiaz desgaitasunen ondoriozkoei.

Aipatutako arau eta printzipioen arabera hezkuntzarako eskubidea izateko baldintzak ezarri behar dituzte hezkuntza-administrazioek. Era berean, hezkuntza-sistemak erraztu egin behar du eta administrazio publikoek sustatu egin behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko prestakuntza edo baliokidea lortzea.

Zalantzarik gabe, eskola-garraioak baldintzatu egiten du eskubide hori izatea eta funtsezkoa da hezkuntzan sartzeko berdintasun eta ekitate printzipioak bermatzeko. Hori dela eta, hezkuntza-administrazioek bere gain hartu beharreko betebeharra da.

Azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuak eta irailaren 28ko 217/2021 Dekretuak eskola-garraioaren dekretuan egindako aldaketak oinarri hartuta, Hezkuntza Sailak uste du eskola-garraioa zerbitzua emateko ezinbestekoa dela erregulazio berria taxutzea, ziurtatzeko mugitzeko zailtasun bereziak dituzten Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek eskola-garraioa zerbitzu osagarria jasotzeko modua izango dutela. Faktore horrek kalitatezko hezkuntza berdintasun-baldintzetan jasotzeko eskubidea sustatzen du, edozein diskriminazio gaindituz, hezkuntza-administrazioak egoera eta irakaskuntza jakin batzuetan bere egin behar dituen obligazioetako bat izaki. Era berean, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei dagokienez, eskola-garraiorako eskubideaz gozatu ahal izateko, komenigarria da ikasleak onartzeko, plazak esleitzeko eta matrikulatzeko prozeduran plaza eskatzeko baldintza egokitzea. Horrenbestez, premiazkoa eta egokia da orain bultzatzen ari diren arau-egitasmoa.

### 3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak

Dekretu-egitasmo honen helburu nagusia da Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak ere eskola-garraioari buruzko maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzea, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek balia dezaten zerbitzu hori, kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea baldintzatzen duelako. Bestalde, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen artean



onartzeko, esleitzeko eta matrikulatzeko prozeduran plaza eskatzeko baldintza aldatu nahi da, eta etxetik hurbilen dagoen ikastetxea izan beharko baita.

#### **4.- Egon daitezkeen ordezeko irtenbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik**

Arauzko prozedura hau beharrezkoa da hezkuntza-administrazioak antolatutako edo finantzatutako eskola-garraioa eskuratu eta erabiltzeko kasu eta baldintzak arautzeko, bai eta zerbitzu osagarria hori emateko modalitateak arautzeko ere. Berdintasunaren printzipioa bermatzeko, ez dago ordezeko irtenbide ez-erregulatzailerik. Edonola ere, kontsultaren helburua da interesdunek egoki iritzitako iradokizunak edo oharrak hartzea.